



Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea





Aurkibidea

A. Testuingurua	P.4
I. Lurraldea	P.5
II. Politika publikoa: lurraldeko helgarritasun unibertsala	P.7
III. Eragileak	P.8
 B. Egoera	 P.18
I. Eraikinak	P.19
II. Mugikortasunak	P.25
III. Numerikoa	P.28
IV. Datuak	P.32
V. Sentsibilizazioa - Formakuntza	P.35
VI. Finantzamendua	P.36
 c. 2022ko helburuak	 P.37
I. Eraikinak	P.38
II. Mugikortasunak	P.39
III. Numerikoa	P.40
IV. Datuak	P.41
V. Sentsibilizazioa - Formakuntza	P.42
VI. Finantzamendua	P.43
Helgarritasunerako misioaren kontaktua	P.44




Helgarritasuna inoiz baino gehiago kontuan hartzen den gaia da Ipar Euskal Herrian. Izan ere, gure gogoeta nagusietarik bat da.

Helgarritasunari buruz lanean ari diren tokiko erakundeek hausnartzen eta lan egiten segitzen dute, plantan ezarritako antolaketaren arabera (Helgarritasunerako Herriko Etxeko Batzordeen (HHEB), Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen (HHB) eta HHEB-HHB sarearen bidez).

Txostenaren lehen zati honetan, Ipar Euskal Herrian helgarritasunaren aldeko ekintzak zein esparrutan gauzatzen diren azaltzen da.



A. TESTUINGURUA





I. Lurraldea

a. Ipar Euskal Herria

- > Ipar Euskal Herria **2.968 km²-ko hedadura** duen lurraldea da. Pirinio Atlantikoetako (64) departamenduaren eta Akitania Berria eskualdearen parte da.

Ipar Euskal Herria **158 udalerrik** osatzen dute. **320.000 biztanle** baino zertxobait gehiago ditu (INSEE arabera, 2019an).

b. Herriak

> 5.000 biztanletik gorako 15 herri

Angelu; Baiona; Biarritz; Bidarte; Bokale; Donibane Lohizune; Hazparne; Hendaia; Hiriburu; Kanbo; Mugerre; Senpere; Urruña; Uztaritze; Ziburu.

> 1.000 eta 4.999 biztanle bitarteko 26 herri

Ahetze; Ahurti; Aiherra; Arbona; Arrangoitze; Azkaine; Baigorri; Bardoze; Basusarri; Beskoitze; Bidaxune; Biriatu; Donapaleu; Donibane Garazi; Ezpeleta; Getaria; Itsasu; Jatsu; Larresoro; Lehuntze; Maule-Lextarre; Milafranga; Sara; Sohüta; Zuraide; Urketa.

> 1.000 biztanletik beherako 117 herri

Ahatsa-Altzieta-Bazkazane; Ainharbe; Ainhize-Monjolose; Ainhoa; Aintzila; Aiziritze-Gamue-Zohazti; Akamarre; Aldude; Aloze-Ziboze-Onizegaine; Altzai-Altzabeheti-Zunharreta; Altxürükü; Amendüze-Unaso; Amoroitze-Zokotze; Anhauze; Arberatze-Zilhekoa; Arboti-Zohota; Arhantsusi; Armendaritze; Arnegi; Arrokiaga; Arrosa; Arrueta-Sarrikota; Arüe-lthorrotze-Olhaibi; Atharratze-Sorholüze; Azkarate; Banka; Barkoxe; Bastida; Behaskane-Laphizketa; Behauze; Behorlegi; Berrogaine-Larüntze; Bidarra; Bildoze-Onizepea; Bithiriña; Bunuze; Burgue-Erreiti; Buztintze-Hiriberri; Domintxaine-Berroeta; Donaixti-Ibarre; Donamartiri; Donazarre; Donoztiri; Duzunaritze-Sarasketa; Eiheralarre; Erango; Etxarri; Etxebarre; Ezpeize-Ündüreine; Ezterenzubi; Gabadi; Gamarte; Gamere-Zihiga; Garindaine; Garrüze; Gixune; Gotaine-Irabarne; Haltsu; Hauze; Heleta; Hozta; Ibarrola; Idauze-Mendi; Iholdi; Ilharre; Irisarri; Irulegi; Iruri; Izpura; Izturitze; Izura-Azme; Jatsu Garazi; Jutsi;

Labetze-Bizkai; Lakarra; Lakarri-Arhane-Sarrikotagine; Landibarre; Larraine; Larribarre-Sorhapürü; Larzabale-Arroze-Zibitze; Lasa; Lekorne; Lekuine; Lekunberri; Lexantzü-Zunharre; Ligi-Atherei; Liginaga-Astüe; Lixoze; Lohitzüne-Oihergi; Luhuso; Lüküze-Altzümarta; Makea; Martxueta; Mehaine; Mendibe; Mendikota; Mitikile-Larriori-Mendibile; Montori; Muskildi; Oragarre; Ortzaize; Ospitalepea; Ostankoa; Ozaraine-Erribareita; Ozaze-Zühara; Pagola; Samatze; Santa Grazi; Sarrikotapea; Suhuskune; Uharte Garazi; Uhartehiri; Urdiñarbe; Urepele; Ürrüstoi-Larrabile; Zalgize-Donztebe; Zaro.

“

Gaur egun, Euskal Elkargoa oinarritzen da “lurralde eremua” izeneko lurralde azpiko antolaketan: Amikuze, Bidaxunealdea, Errobi, Errobi Aturri, Euskal kostaldea - Aturri, Garazi Baigorri, Hazparnealdea, Hego Lapurdi, Iholdi Oztibarre, Xiberoa. Hamar lurralde eremu horietako egoitzei Elkargoaren Etxeak deitzen zaie.

”

c. Euskal Elkargoa

• Nor da lehendakari?

Jean-René ETCHEGARAY

• Nork hartzen ditu erabakiak?

- 232 hautetsi titular eta 143 hautetsi ordezkok osatzen duten elkargoko kontseilu batek;
- 73 hautetsik –haietan lehendakariak eta 15 lehendakariordek– osatzen duten kontseilu iraunkor batek;
- 35 hautetsik –haietan lehendakariak eta 15 lehendakariordek– osatzen duten kontseilu betearazle batek.

• Nork gauzatzen ditu erabakiak?

- Zerbitzuen zuzendaritza nagusi batek;
- Zazpi zuzendariordetza nagusik;
- Zuzendaritzek, Misioek, Zuzendariordetzei lotu zerbitzuek.





II.-Politika publikoa: Iurraldeko helgarritasun unibertsala

a. Nork du akuilatzen?

- • **Lehendakariorde batek:** Daniel OLÇOMENDY
- **Helgarritasunerako misioak**, Sébastien Evrardek gidaturiko Baliabide eta sustenguzerbitzuen zuzendariordetza nagusiaren pean den eta bi langile dituen –Claire SARTHOU (Helgarritasunerako proiektu burua) eta Claudine CELHAIGUIBEL (Datuen eta Helgarritasun digitalaren misio karguduna).

b. Nork du obratzen?

- • **Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak**
- **Helgarritasunerako Herriko Etxeko Batzordeen eta Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen sareak** (HHEB-HHB sareak)
- **Helgarritasunerako misioak**

c. Noren izenean ?

- • **Herriko etxeen izenean**
- **Euskal Elkargoaren izenean**
- **Ipar Euskal Herri - Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren izenean**



III. Eragileak

a. Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea

- > **Eremua:** 2021ean, Euskal Elkargoaren, Ipar Euskal Herri - Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren eta Ipar Euskal Herriko 5.000 biztanletik beherako 143 Herriko Etxeen izenean esku hartu du batzordeak.
- > **Antolaketa:** Batzordea ahalmen urritasuna duten pertsonak eta adineko jendeak ordezkatzan dituzten 10 elkarte biltzen dituen instantzia da. Euskal Elkargoa ordezkatzan duten 10 hautetsi titular eta beste 10 ordezkok eta Mugikortasunen Sindikatuko hautetsi titular bat eta ordezeko batek osatzen dute. Gainera, batzordeak badu ere 7 elkarte eta 4 hautetsiz osatutako lan taldea.

- **Nor da buru?**

Daniel OLÇOMENDY

- **Nork hartzen ditu erabakiak?**

Batzordeak

- **Nork gauzatzen ditu erabakiak?**

Lan taldeak edo Helgarritasunerako misioak

- **Nork du sustatzen?**

Helgarritasunerako misioak

- > **Eginkizuna:** Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L2143-3 artikulua zati labur bat:

- Batzordeak ahalmen urriko edo mugikortasun urriko pertsonen helgarritasuna zehazten du, urritasun motaren arabera, garraioen kodearen L.1112-1 artikuluari jarraikiz lehentasunezko geldilekuen berrehun metroko inguruan dauden ibilbide eta bide nagusietan;
- Batzordeak eguneratzen ditu, tresna elektronikoen bidez, lurraldean jendea errezibitzen duten eraikin pribatu eta publikoen zerrenda eta ahalmen urritasuna duten pertsonak eta adineko jendeak errazki joan daitezkeen eraikinen zerrenda;



- Batzordeak sistema bat antolatzen du, ahalmen urriko pertsonendako eta adineko jendeendako bizitegi eskuragarriaren eskaintza zerrendatzeko;
- Batzordeak proposamen balios guziak egiten ditu, egungo eraikinen helgarritasuna hobetzeko.
- Batzordeak urteko txosten bat idazten du, txosten hori Elkargoko kontseiluan aurkezten du eta ondotik prefetari igortzen dio.

> Kideak:



Daniel OLÇOMENDY
Helgarritasunerako Herriarteko
Batzordearen lehendakaria
eta Lan taldearen burua



Claire SARTHOU
Euskal Elkargoaren
Helgarritasunerako proiektu burua



Pascal DANTIACQ
Hautetsi titularra
Amikuze



Chantal ERGUY
Ordezko hautetsia
Amikuze



Joëlle TURCAT
Hautetsi titularra
Euskal kostaldea-Aturri



Jean-marie GUTIERREZ
Ordezko hautetsia
Euskal kostaldea-Aturri



Jean-Michel SERRANO

hautetsi titularra

Errobi

Lan taldeko kidea



Argitxu HIRIART-URRUTY

ordezko hautetsia

Errobi



Laëtitia COLOM

hautetsi titularra

Garazi Baigorri



Claire DUTARET BORDAGARAY

ordezko hautetsia

Garazi Baigorri



Christine ERDOZAINCY-ETCHART

hautetsi titularra

Iholdi Oztibarre



William SISSOKHO

ordezko hautetsia

Iholdi Oztibarre



Sandrine MINNE

hautetsi titularra

Errobi Aturri

Lan taldeko kidea



Jean-Paul BAREIGTS

hautetsi titularra

Bidaxunealdea

Lan taldeko kidea



Anne-Marie JOCOU

hautetsi titularra

Hazparnealdea



Bastien DUHALDE

ordezko hautetsia


Errobi Aturri



Marie-Ann LATHIERE

ordezko hautetsia

Bidaxunealdea



Nathalie ETCHEGOYEN

ordezko hautetsia

Hazparnealdea



Michel IBARRA

hautetsi titularra
Xiberoa



Alain ARLA

ordezko hautetsia
Xiberoa



Sandrine ARAGUAS-CAZEMAYOR

hautetsi titularra
Hego Lapurdi
Lan taldeko kidea



Marion DUPRAT

ordezko hautetsia
Hego Lapurdi



Sophie CASTEL

hautetsi titularra
Ipar Euskal Herri-Aturriko
Mugikortasunen Sindikatua



Beñat CACHENAUT

ordezko hautetsia
Ipar Euskal Herri-Aturriko
Mugikortasunen Sindikatua



Paulette MONGABURRU

APF France Handicap
Urritasun motorea
Lan taldeko kidea



François HERVE

Association Fraternelle des Aveugles
Urritasun motorea
Lan taldeko kidea



Pascal ANDIAZABAL

Association Valentin Haüy (AVH)
Ikusmen urritasuna
Lan taldeko kidea



Gérard LAURENT

APF France Handicap
Urritasun motorea
Lan taldeko kidea



Isabelle DEYHERABEHRE

Association Fraternelle des Aveugles
Ikusmen urritasuna
Lan taldeko kidea



Jean CAPDEVILLE

Association Valentin Haüy
Ikusmen urritasuna
Lan taldeko kidea



Jean BERTCHERIE

Ahalmen urriko Helduen eta Gazteen
aldeko elkarte / Urritasun kognitiboa
[Lan taldeko kidea](#)



Henri LAVALLEE

Miopatien kontrako Frantziako
Elkarte / Urritasun motore anitza



Brigitte BERCKMANS-ESPI

Handiplage
Urritasun motorea
[Lan taldeko kidea](#)



Ramon ESPI

Handiplage
Urritasun motorea
[Lan taldeko kidea](#)



Nicolas BACHOFFER

Handisport
Urritasun mota oro



Bernard MESZAROS

Handisport
Urritasun mota oro



Iñaki ÇALDUMBIDE

Ahalmen Urriko Helduendako
Bizi-Eremua / Urritasun kognitiboa
[Lan taldeko kidea](#)



Mayie LEPAROUX

Génération Mouvements 64
Adineko jendeak



Dominique MAGNARD

Signes Libres
Entzumen urritasuna
[Lan taldeko kidea](#)



Stéphane MAILLART

Signes Libres
Entzumen urritasuna
[Lan taldeko kidea](#)



b. Helgarritasunerako Herriko Etxeko Batzordeen eta Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen sarea (HHEB-HHB sarea)

➤ **Eremua:** HHEB-HHB sarea osatzen dute Euskal Elkargoak, Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak eta Ipar Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako 15 Herriko Etxeak.

➤ **Antolaketa:** Hautetsien sareak eta Teknikarien hiru sarek (eraikinak, bideak, digitala) osatzen dute.

- **Nor da buru?**

Kide anitzeko lehendakaritza

- **Nork hartzen ditu erabakiak?**

Hautetsien sareak

- **Nork gauzatzen ditu erabakiak?**

Teknikarien sareek

- **Nork du sustatzen?**

Helgarritasunerako misioak

➤ **Eginkizuna:** Helgarritasunaren ikuspegi partekatua izatea, baliabideak bateratzea eta lurralde osorako baliabide izatea.

➤ **Kideak: Hautetsien sarea**

Daniel OLÇOMENDY

Euskal Elkargoa eta Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua

Joëlle TURCAT

Angeluko herria

Deborah LOUPIEN-SUARES

Baionako herria

Valerie SUDAROVICH

Biarritzeko herria

Florence POEYUSAN

Bidarteko herria

Jean-Marie GUTIERREZ

Bokaleko herria

Nicole AMESTOY

Kanboko herria

Peio DUFAU

Ziburuko herria

Véronique BROUSSAINGARAY

Hazparneko herria

Xabier MANTEROLA

Hendaiaiko herria

Christian PAILLAUGUE

Mugerreko herria

Christine DUHART

Donibane Lohizuneko herria

Dominique IDIART

Senpereko herria

Sandrine ARAGUAS-CAZEMAYOR

Urruñako herria

Jean-Michel SERRANO

Uztaritzeko herria

> Bideetako teknikarien sarea

Franck ETAVE / Eric AYEZ

Angeluko herria

Gilles DELHAIE

Baionako herria

Franck DRUESNES

Biarritzeko herria

Stéphane PODEUR

Bidarteko herria

Christophe LYON

Bokaleko herria

Jérôme ESCUTARY

Kanboko herria

Vincent URANGA

Ziburuko herria

Patrick MASTOUMECQ

Hazparneko herria

Christophe CALVO

Hendaiaiko herria

Anne PORCELLINI

Mugerreko herria

Jean-Marc DELPECH

Donibane Lohizuneko herria

Patrick ELIZALDE

Senpereko herria

François ALSUGUREN

Urruñako herria

Maxime DIRIBARNE

Uztaritzeko herria

Claire SARTHOU

Euskal Elkargoa



> Eraikinetako teknikarien sarea

Sébastien BEREAU

Angeluko herria

Philippe DUMONT

Baionako herria

Franck DRUESNES

Biarritzeko herria

Stéphane PODEUR

Bidarteko herria

Christophe LYON

Bokaleko herria

Thierry EUDES

Kanboko herria

Alain PLAINO

Ziburuko herria

**SOPHIE SALLABERRY /
PATRICK MASTOUMECQ**

Hazparneko herria

Yves DARRIEUMERLOU

Hendaiaiko herria

Anne PORCELLINI

Mugerreko herria

Stéphane LERCHUNDI

Donibane Lohizuneko herria

Patrick ELIZALDE

Senpereko herria

François SUSPERREGUI

Urruñako herria

Denis TREPOUT

Uztaritzeko herria

Claire SARTHOU

Euskal Elkargoa

> Helgarritasun numerikorako erreferenteen sarea

Christophe HARNIE

Angeluko herria

**Laurie DUMORA /
François LABARDE**

Baionako herria

**Laëtitia FELIS /
Karl CONREUX**

Bidarteko herria

**Franck DRUESNES /
Bertrand SAUVAGNAC**

Biarritzeko herria

Claire FUENTES

Bokaleko herria

Nicolas LE BARS

Kanboko herria

Marie-Clémence SURZUR

Ziburuko herria

Karine LEON /

Jean-Baptiste DARDEL

Hazparneko herria

**BÉATRICE LAFFARGUE /
ALEXANDRE CORRIHONS /
PHILIPPE PIQUEREY**

Hendaiaiko herria

Thomas PAILLAUGUE

Mugerreko herria

**Chrystel MARTY-TUSSEAU
Jean-Noël LACROIX**

Donibane Lohizuneko herria

Anne BORDES

Senpereko herria

Sandra BOSCH-DACHARY

Hiriburuko herria

Damien BOYER

Urruñako herria

Jean-Michel URRUTIA

Uztaritzeko herria

Claudine CELHAIGUIBEL

Euskal Elkargoa

c. Helgarritasunerako misioa

- **Eremua:** Euskal Elkargoa, Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua, beste erakunde satellite (adibidez: Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoa) eta Ipar Euskal Herriko 158 Herriko Etxeetan esku hartzen du helgarritasunerako misioak.
- **Antolaketa :** Turismo Iraunkorraren eta Lurraldeko Helgarritasun Unibertsalaren ardura duen Daniel OLÇOMENDY da Helgarritasunerako misioaren hautetsi erreferentea. Helgarritasunerako misioa Baliabideen eta sustengu-euskarrien zuzendariorde nagusiari lotua zaio. Bi langilek osatzen dute.
- **Kideak:** Claire SARTHOU, Claudine CELHAIGUIBEL
- **Eginkizuna:** Helgarritasunerako misioak obraginak (hirigunearen zerbitzuak, Mugikortasunen Sindikatuaren zerbitzuak, Herriko Etxeak) laguntzen ditu, eraikinen, bideen, mugikortasunaren eta digitalaren alorretan. Batzordeak eta sareak sustatzeaz arduratzen da. Proiektuak gauzatzen laguntzen du. Euskal Elkargoa ordezkatzeko Estatuko helgarritasunerako instantzietan (Hiri Inklusiboetako Helgarritasunerako Erreferenteen lan taldean, Informazio Geografikoaren Kontseilu Nazionalaren lan taldean).





Ipar Euskal Herrian helgarritasunaren egoeraren azterketa egiteak ahala ematen dio bakoitzari Euskal Elkargoak lurraldeko helgarritasun unibertsalaren inguruan duen xedearen betetzeko burutu dituen ekintzen zerrenda ikusteko.

2017an sortu baino lehen eta gero burututako ekintzak garatu eta berrikuntzak eta esperimentazioak sustatu nahi ditu Elkargoak.

Izan ere, helgarritasunaren aldeko neurrien akuilatzailea izan nahi du bere lurraldean.

2021eko ekintzak sei ardatz nagusiren arabera deklinatu ditu:

- Eraikinak;
- Mugikortasunak;
- Numerikoa;
- Datuak;
- Sentsibilizazioa eta formakuntza;
- Finantzamendua.



B. Egoera



Sentsibilizazioa



Numerikoa



Etxegintza



Mugikortasunak



Datuak



formakuntza



I. Eraikinak

a. Helgarritasun Programatuko Agenden (HPA) jarraipena

> **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa

> **Noren izenean? Euskal Elkargoaren izenean**


Helgarritasunerako misioak Ondare Eraikiaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari laguntzen dio Helgarritasun Programatuko Agendak (HPA) plantan ezartzen lurralde eremu bakoitzean.

2021ean, Helgarritasun Programatuko Agenden segimendua egin du honako lurralde eremuetan: Amikuze, Bidaxunealdea, Errobi, Euskal kostaldea-Aturri, Garazi Baigorri, Hazparnealdea eta Xiberoan.

- **Amikuze:** Elkargoaren Etxeko obrak bururatu dira.
- **Euskal Kostaldea - Aturri:** Baionako musika kontserbatoriora errazki joateko obra-azterketak hasi dira. Egoitzatik kanpoko eremuen helgarritasun-lanak 2021eko urtearen bukaeran hasi ziren, eta 2022an bururatuko dira.
- **Errobi:** Mamurrak haurtzaindegian eta Kanboko igerilekuan obrak egiteko azterketak abiatu dira. Louis Dassance aisialdi zentroko obrak egin dira.
- **Hazparnealdea:** Baigurako aisialdi guneko obrak bururatu dira.
- **Xiberoa:** obra guztiak bururatu dira.

> **2021eko bilana :**

7 HPA aurkeztu dira Amikuze, Bidaxunealdea, Errobi, Euskal kostaldea-Aturri, Garazi Baigorri, Hazparnealdea, Xiberoa eta Hego Lapurdin:



> **Eragilea: Helgarritasunerako misioa**

> **Noren izenean? Euskal Elkargoko Herriko Etxeen izenean**

Helgarritasunerako misioak Herriko Etxeei laguntzen die Helgarritasun Programatuko Agendak (HPA) plantan ezartzen. 2021ean, lurralde eremu horietako Herriko Etxeen Helgarritasun Programatuko Agenden segimendua egin du:

- **Amikuze** : Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Domintxaine-Berroeta, Donapaleu, Ilharre, Larribarre-Sorhapürü, Lohitzüne-Oihergi, Mehaine, Pagola, Uhartehiri;
- **Errobi** : Arrangoitze, Haltsu, Kanbo, Larresoro, Luhuso, Zuraide;
- **Garazi Baigorri** : Aldude, Anhauze, Arnegi, Bidarra;
- **Iholdi Oztibarre** : Armendaritze, Izura-Azme;
- **Hazparneko lurraldea** : Bastida, Donoztiri, Hazparne;
- **Bidaxuneko lurraldea** : Samatze;
- **Xiberoa** : Muskildi.
- **Hego Lapurdi** : Hendaia, Sara, Senpere.

b. LIFI esperimentazioa

> **Eragilea: Helgarritasunerako misioa**, CEREMArekin lankidetzan (Arriskuei, ingurumenari, mugikortasunari eta antolaketari buruzko azterketarako eta aditu txostenetarako zentroa)

> **Partaidea: Glorytech enpresa, Grall aplikazioaren sortzailea**

> **Noren izenean? Euskal Elkargoaren izenean**

Bere lurraldean, Euskal Elkargoak araua du diseinu unibertsaleko irakaspenak aplikatzea bere proiektuetan, hots, bere proiektuak baliosak, praktikoak eta denentzat erabilgarri izatea.

“

Bere eraikinetako zerbitzuetara errazki joateari dagokionez, Elkargoa ohartu da erabiltzaileentzat ez dela beti erraza zerbitzu ona edo bilkura gela ona aurkitzea, bereziki ikusmen urritasuna dutelarik. Baina, GPS edo Bluetooth funtzioei esker eraikinetik kanpo erabiltzailea gidatu badaiteke ere, eraikinaren barneko joan-jinak ez dira gaur egun nahi bezain errazak.

”

Horregatik, Elkargoari LIFI teknologia interesatzen zaio. Izan ere, barnean erabiltzaileak gidatzeko ahala emanen luke, GLORYTECH startup-ak garatutako Grall aplikazioari esker.

Esperimentazioaren barnean, “GRALL” aplikazio unibertsalaren bidez hainbat teknologia eta konexio-molderen laguntza izan dezake erabiltzaileak, joan-jinetan jarraikitasuna bermatzeko. Lekuak sortu traben arabera, erabiltzaileak teknologiarik egokiena erabil dezake kanpoko eremu publikotik eraikinen barnera joateko eta bidean jarraikitasuna bermatzeko. Konexio-molde batetik bestera errazki pasa daiteke erabiltzailea, telefonoko Internet saretik WiFira errazki pasatzen den bezala.

- **GPS bidezko geolokalizazioa kanpoan** (Galileo satelitea)
- **Bluetooth balizen bidezko geolokalizazioa** kanpoko eta barneko eremuetan ezarritik, smartphoneko Bluetooth-aren bidez erabiltzailea lokalizatu eta hari eduki/informazio bat helarazteko, haren kokapenaren arabera.
- **LIFI bidezko geolokalizazioa** barnean, eduki/informazio bat helarazten duen LED argia eta smartphone kameraren arteko interakzioari esker.

Aplikazioa urrik deskarga daiteke deskarga-plataformetan. Aplikazioak aukera ematen du puntuak sortzeko eta puntu bakoitzari edukia aktibatzen duen teknologia bat esleitzeko –GPS, Bluetooth, LIFI–.

Puntu bakoitzari eduki bat lotzen zaio: audioa, bideoa, irudia edo testua. Aplikazioak smartphonearen Internet sarea erabiltzen du edukiak irakurtzeko.

LIFI teknologiaren barnean, aplikazioak lotura egiten du LED argiak igorritako kodearen eta kodeari dagokion edukiaren artean. Telefono mugikorraren kamerak du lotura aktibatzen (LIFI bideratzailearen eta smartphone kameraren artean daturik transmititu gabe).



2021ean, CEREMArekin lankidetzan egindako proiektuaren barnean, Euskal Elkargoak baliabidearen bi ebaluazio egitea erabaki du:

- Erabiltzaileek egindako ebaluazioa
- Helgarritasun digitalean espezializatutako hornitzaile baten ebaluazio teknikoa.

> Erabiltzaileek egindako ebaluazioaren deskribapena:

2021eko uztailaren 1ean, LIFI aplikazio eta teknologiaren esperimentazio zuzena egin zen. Esperimentazio honen helburua zen pertsonak eraikin batean A puntutik B puntura autonomian mugitzeko duten gaitasuna egiaztatzea, GRALL aplikazioa eta LIFI balizei lotutako mezuak erabiliz. Test hori Urruñako Elkargoaren Etxean egin zen.

Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeko lan taldeko kideek aitzinetik ereduazko ibilbideak zehaztu zituzten (adibidez, sartzetik harlekura, harlekutik bilkura gelara eta abar).

> Esperimentaziorako, hauek mobilizatu ziren:

HONAKO HAUEK OSATU ZUTEN TALDE TEKNIKOA:

- **CEREMA:** 3 langile
- **Euskal Elkargoa:** 3 hautetsi + 2 langile
- **Laguntza teknikoa:** ergoterapeuta 1
- **Gomitak:** Valentin Haüy elkarteko eta Association Fraternelle des Aveugles elkarteko lehendakariak

HONAKO HAUEK OSATU ZUTEN TESTA EGITEKO TALDEA:

- Association Fraternelle des aveugles elkarteko 5 kide
- Valentin Haüy elkarteko 4 kide

Ergoterapeuta bat behatzaile gisa egon zen egun osoan. Banakako ibilbideetatik abiatu egin zen testa. Hala ere, antolaketa arrazoiengatik, parte hartzaileak 5 eta 4 pertsonako bi taldetan banatu ziren: talde bat goizez eta bestea arratsalde. Taldearen harrera egin zen hasieran eta helmugan, parte hartzaileek beren artean solasik izan ez zezaten banakako ibilbidea egin baino lehen.



● Testaren iragatea (egun erdi bat):

1. **urratsa:** taldearen harrera.
2. **urratsa:** banakako harrera (testaren iragatearen aurkezpena, smartphonearen bateragarritasunaren probatzea, parte hartzaileei mikroak ezartzea).
3. **urratsa:** 15 bat minutuko banakako ibilbidea egitea, autonomian eta filmaturik test ondoko analisirako.
4. **urratsa:** parte hartzaileak bakarkako bilduma egitea, galdeketari erantzutea.
5. **urratsa:** parte hartzaileak elkartzea eta denen arteko solasaldia.
6. **urratsa:** hautetsiek, CEREMAk, Helgarritasunerako misioak eta ergoterapeutak osatutako talde teknikoak bilduma egitea.

● Parte hartzaileen taldea:

Joan-etorrietarako autonomia eta laguntza maila desberdina duten pertsonaitsu eta ikusmen urriko jendeak biltzen ditu esperimentatzaileen taldeak. Erabiltzaileei ez zaie ikusmen urritasunen izaera azaltzea eskatzen, esperimentazioaren helburua baita sistema berri hori ohiko joan-etorrietarako erabilgarri izatea. Erabiltzaile gehienek berrogeita hamar urte baino gehiago dituzte, hots, ikusmen urriko herritarren adierazgarri dira. Horietarik zortzi ikusmen urrikoak dira eta bat itsua da. Horietarik zortzi itsu-makilarekin mugitzen dira eta bat itsu zakurrarekin.

● Parte hartzaileen tresnatzea:

- Parte hartzaile bakoitzari mikrofono bat ezartzea abiatu baino lehen.

● Ibilbideak

- Ibilbide anitz egin daitezke. Kasu egiten da parte hartzaileak ez daitezen ibilbide berean aldi berean elkartu.

● Hauek dira lehen irakaspenak:

- **Oro har, erabiltzaileek baliabidean duten interes bizia berretsi da;**
- **GRALL aplikazioari buruz:** erabiltzeko erraztasuna, baina ahotsezko kontrolagailuekin nabigatzeko arazoak (ebaluazio teknikoak berretsi du);
- **LIFI teknologiarri buruz:** ibilera ona, betiere erabiltzailearen telefonoa LIFI balizak detektatzera heltzen bada.

> Ebaluazio teknikoaren deskribapena:

Helgarritasun numerikorako urte anitzeko eskeman hartutako engaiamenduen arabera, Euskal Elkargoak GRALL aplikazioaren ikuskapena egiten du.

Produktu eta zerbitzuen helgarritasunari buruzko Europako arauaren irizpide guziak betetzeari buruzkoa da ikuskapena (EN 301 549 araua (3.2.1. ber.)). Testa egiteko, aplikazio mugikorren helgarritasuna ebaluatzeko araua erabiltzen du ikuskariak (orain arte argitaratutako metodo baliagarri bakarra). Helgarritasuna Hobetzeko Araudi Nagusiaren gomendioen arabera, itzultze-testak egiten dira VoiceOver pantaila-irakurgailuarekin IOS sistema eragilean.

● Hauek dira lehen irakaspenak:

- Botoi batzuk ezin dira aktibatu teklatuarekin edo pantaila-irakurgailuarekin;
- Ikuspegiaren kudeaketa ez da beti koherentea;
- Kontrasteak hobetu behar dira;
- Informazioa egituratu behar da (edukien izenburua);
- Edukiak erretratu edo paisaia moduan kontsultatzeko aukera eman behar da.

“

Diagnostikoa egin ondoan, bilkura teknikoa antolatu da ikuskariaren, GRALL aplikazioa garatzen duen GLORYTECH enpresaren eta Euskal Elkargoaren artean. Araua betetzen ez duten puntuak aipatu dira, zuzenketak egiteko.

”





II. Mugikortasunak

a. Helgarritasun Programatuko Agendaren Eskema Nagusia (HPAEN)

- **Eragilea:** HPAEN-en misio karguduna eta Helgarritasunerako misioa
- **Noren izenean?** Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren izenean

2017an, Euskal Elkargoa sortu zen, Ipar Euskal Herriko 10 herri elkargoek bat egitearen ondorioz –haietan Euskal kostaldea-Aturri eta Hego Lapurdiko hiriguneak–. Segidan, Euskal Hirigune Elkargoak “Mugikortasunen” eskumena eman zion Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuari. Sindikatu horrek gaur egun Euskal Elkargoko 158 Herri biltzen ditu eta baita Landesetako Ondres, Saint-Martin-de-Seignanx eta Tarnoseko herriak.

Mugikortasunaren lurralde berri horren sorrerarekin batera, antolaketa eta zerbitzu-eskaintza asko aldatu ziren, eta aldi berean ordu artekoa mantendu zen kontratu-engaiamenduengatik eta Eskualdeak Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuari eskumenak eskualdatzeagatik (eskolako garraioak eta hiriarteko garraio ibilbideak). Horrela, gaur egun, hainbat sare badira lurraldean: Chronoplus, Hegobus, Car Express. Eta eskaintza berri batzuk sortu dira ere, hala nola Tram-Busa, Proxi’Busa, ibaietako joan-jinkariak eta abar. Azkenik, erabiltzaileendako eskaintza irakurgarriagoa eta ulergarriagoa izan dadin, Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak TXIK-TXAK marka sortu du, bere eskaintza guzua marka horrekin merkaturatzeko.

Lurralde- eta eskaintza-aldaketa handi horien ondorioz, 2021ean Helgarritasun Programatuko Agendaren Eskema Nagusi (HPAEN) berria idazteko prozesua abiatu du Mugikortasunen Sindikatuak. Horretarako, HPAEN-en misio kargudun bat kontratatu du 2021eko urrian, hiru urterako. Misio kargudun haren eginkizuna HPAEN idaztea eta honen gauzatzea da, Helgarritasunerako misioaren laguntzarekin.

Oroitarazten da 2017an, Euskal Elkargoaren sorreran, bi HPAEN bazirela: bat Euskal kostaldea-Aturri hirigunean, bestea Hego Lapurdiko hirigunean. HPAEN bakoitzak 2016 eta 2018ren arteko eperako balio zuen. Orduko bi HPAEN haiek ez dute balio gaur egun.

b. Araudi teknikoa: garraio publikoko geldileku baten antolatzea

> **Acteur :** Mugikortasunen Sindikatuaren zerbitzuak, HHEB-HHB sareko bideetako teknikariak eta Helgarritasunerako misioa

> **Noren izenean?** Ipar Euskal Herri-Aturiko Mugikortasunen Sindikatua

2020an, bideetako teknikarien HHEB-HHB sareak, Helgarritasunerako misioa bultzaturik, garraio publikoko geldileku bat antolatzeko araudi tekniko bat sortu zuen, Mugikortasunen Sindikatuaren zerbitzuekin elkarlanean. Agiri honek herri bakoitzari behar diren elementu teknikoak ematen dizkio, garraio publikoko geldilekuak pentsatu eta eraikitzeko.

2021ean, erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko lan egin da. Araudiari aldaketak ekarri zaizkio. Aldeek honakoa erabaki dute:

- Ibilgailuen aitzineko atean ikusizko eta ukipenezko seinaleak ezartzea;
- Geldilekuko kaiaren luzeran ikusizko eta ukimenezko segurtasun-marra baten sortzea, ikusmen urritasuna duten edoitsuak diren erabiltzaileak ez daitezen kaiaren bazterretik hurbilegi egon;
- Geldilekuko kaietan dauden gida-ibilbideak kentzea, NF P 98-352 arauari jarraikiz. 352.

“

Testak egin dira Angeluko herrian Valentin Haüy eta Association Fraternelle des Aveugles elkarteetako kideekin, kolorearen hautua eta baliabideen lodiera (aitzineko atearen seinaleak eta segurtasun-marra) ontzat emateko. Lekuan berean antolatutako HHEB-HHB sareko bilkura tekniko baten ondoren, soluzioak baietsi dira.

”



c. Mugikortasunen plana

- > **Eragilea:** Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeko hautetsiak
- > **Noren izenean?** Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren izenean

Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak sortutako Mugikortasunen Planari buruzko iritzia galdu dio Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeari. Batzordekideek eta bereziki hautetsiek beharrezkotzat jo dute Mugikortasunen Planaren helgarritasunari buruzko eranskinari proposamenak gehitzea.

Helgarritasunerako misioaren laguntzarekin, Daniel OLÇOMENDY jaunak sustatzen duen lan taldea osatu da. Batzordean lurralde eremu bakoitza ordezkatzeko 10 hautetsik osatzen dute lan taldea.

Lan taldea 2021eko maiatzaren 4an eta 18an bildu zen, agiri bat idazteko, partzuer diren eta kontsultatu diren pertsona publikoak kontsultatzeko Sindikatuak abiatu duen prozeduraren parte gisa.

Oixtion aipatutako kontsulta-prozedura bururatu ondoan, Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak proposatutako dokumentua kontuan hartu du Mugikortasunen Sindikatuak, eta Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearekin berriz harremanetan jartzea proposatu du, egindako oharrek kontuan hartuz Mugikortasunen Planaren helgarritasunari buruzko eranskinaren bertsio berria aurkezteko.





III. Numerikoa

Gaur egun, gero eta desmartxa edo informazio gehiago egiten edo transmititzen dira webguneen, aplikazio mugikorren, Internet erabiltzen duten lanbide-programen eta hiri-altzarien bidez (adibidez, hunkimen pantailak). 2019az geroztik, Euskal Elkargoak lan handia egin du gai honen inguruan, axola baitu erabiltzaile bakoitzak zerbitzu horiek errazki erabili ahal izateaz.

a. Helgarritasun numerikorako urte anitzeko eskema

➤ **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa

➤ **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren izenean

2021ean, Euskal Elkargoak helgarritasun numerikorako urte anitzeko eskema idatzi du.

Hau da bide orria: urte anitzeko eskemaren eta ekintza-planen edukiek Euskal Elkargoaren helgarritasunaren aldeko politika gidatzen duten eredugarritasun eta laguntza xedeak islatzeko gisan lan egitea.

Hori dela eta, beharrezkotzat jo da eskema honen esparrua zabaltzea Elkargoaren ardura diren lineako komunikazio zerbitzuez haratago (hots, araudiak xedetzat duen perimetroaz haratago).

Urte anitzeko eskema idazten lagundu du helgarritasun numerikoan aditua den jakile batek. Metodologiari dagokionez, urte anitzeko eskema idatzi eta obratzeak lau etapa biltzen ditu:

1. Egoera-akta
2. Eskemaren xedeen zehaztea
3. Urteko ekintza-planak egitea
4. Urteko ekintza-planak ebaluatzea.

Aztertutako gaien arabera, instantzia politiko batzuk mobilizatzen dira zerbitzu teknikoen laguntzarekin.

Eskemaren barnean egindako lehen egoera-aktari esker, honako elementu hauek zerrendatu dira, baina zerrenda aldakorra da:

- 17 webgune, haietan erakundearen webgunea: www.communaute-paysbasque.fr
- Intraneteko gune bat
- aplikazio mugikor bat

Zerrenda horrek ez ditu kontuan hartzen Elkargoaren egitura “sateliteek” –hala nola Euskal Elkargoko Turismo Bulegoak, Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak eta abarrek– kudeatzen dituzten webguneak eta aplikazio mugikorrak, egitura haiek urte anitzeko eskema propioa idatzi behar baitute.

Elkargoko Kontseiluak eskema eta 2021eko ekintza-plana onartzea erabaki zuen 2021eko apirilaren 10eko bilkuran.

Helgarritasun numerikorako urte anitzeko eskema eta 2021eko ekintza-plana Elkargoaren webgunean argitaratu dira.

> Eragilea: Helgarritasunerako misioa

> Noren izenean? Lurraldeko 158 herrien eta Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren izenean

Euskal Elkargoak akuilatzaile izateko asmoa du bere lurraldean, haren kide diren 158 herriak eta Mugikortasunen Sindikatua lagunduz, helgarritasun numerikoaren aldeko bertutezko dinamika bat sortzeko.

HHEB-HHB sareko hautetsiek eskaturik egindako azterketaren ondoren, erabaki da Euskal Elkargoak duela finantzatuko bere lurraldeko helgarritasun numerikorako urte anitzeko eskema idatzi eta egitea.

Eskema honetan datza: entitate bakoitzean existitzen diren zerbitzu numeriko guzien egoera-akta egitea. Gehienez ere 3 urtez gidatzen du. Hala, espero da, eskemaren hiru urteko epea bururatzean, zerbitzu bakoitza osoki arauen arabera egitea.

2021 bukaeran, 53 herrik adierazi dute Helgarritasunerako misioaren laguntzaz baliatzeko printzipiozko adostasuna.

Beherean zerrendatutako herriek laguntza eskatu diote Helgarritasunerako misioari. Solasaldiak helgarritasun numerikoaren gaiari buruzko sentsibilizazioa egiteko parada izan dira, herriaren webgunearen ikuskatze labur egin da herri batzuentzat eta eskema sortu da beste batzuentzat:

- Aiziritze
- Arrangoitze
- Azkaine (eskema helarazirik)
- Baiona (ikuskatze laster bat baizik)
- Biarritz (ikuskatze laster bat baizik)
- Bidaxune
- Beskoitze
- Bokale (eskema helarazirik)
- Donibane Lohizune (eskema helarazirik)
- Getaria
- Hazparne
- Heleta
- Hiriburu
- Kanbo (eskema helarazirik)
- Larresoro
- Lehuntze
- Luhuso
- Maule (eskema helarazirik)
- Mugerre
- Oragarre
- Sara
- Urruña
- Uztaritze (eskema helarazirik)



b. Elkorrak eta entzumen urrikoak diren pertsonendako telefono bidezko harreraren eta harrera fisikoaren aterabideak

> Eragilea: Helgarritasunerako misioa

> Noren izenean? Euskal Elkargoaren eta lurraldeko 158 herrien izenean

Oroitarazten da araudiak aurreikusten duela herriek eta herriarteko lankidetzako erakunde publikoek (HELEP) elkorrak eta entzumen urrikoak diren pertsonen telefono bidezko harrera eta harrera fisikoa eskaini behar dietela. Betebehar hori, hasieran, 10.000 biztanletik gorako elkargoei zegokien, eta 2021 bukaeratik goiti, udalerrri guziei.

2020an, HHEB-HHB sareko hautetsiek galdaturik, Helgarritasunerako misioak azterketa bat egin zuen, eta, azterketa horrek agerian eman zuen zerbitzu horren plantan ematea eta funtzionamendua bateratu behar direla.

Ondorioz, honako aterabide hau onartu da:

- Instalazio-gastuen % 100 Euskal Elkargoak finantzatzen du;
- Harpidetza-gastuak honela banatzen dira Elkargoaren eta 10.000 biztanletik gorako 6 herrien artean: % 30 Euskal Elkargoak finantzatzen du eta % 70 herriek haien biztanle kopuruaren arabera.

ELIOZ sozietateak proposatutako ELIOZ CONNECT aterabidea hautatu da zerbitzu hori emateko.

2021 urte bukaeran, HHEB-HHB sareko hautetsiek proposatu dute ELIOZ soluzioa Euskal Elkargoko 158 herrietara zabaltzea, lurralde osoan helgarritasunaren ikuspegi bera izan dadin.

Ondorioz, honako aterabide hau onartu da:

- Instalazio-gastuen % 100 Euskal Elkargoak finantzatzen du;
- Harpidetza-gastuak honela banatzen dira Elkargoaren eta 5.000 biztanletik gorako 15 herrien artean: % 30 Euskal Elkargoak finantzatzen du eta % 70 herriek haien biztanle kopuruaren arabera. Gainerako herri guziki, hala galdatuz gero, urririk baliatzen dira soluzioaz.

Proposamen hori aho batez onartu du Kontseilu Iraunkorrak 2021eko urriaren 12an.



IV. Datuak

a. Araudia

Lurralde Elkargoen Kode Orokorraren (LEKO) L2143-3 artikulua aurreikusten du Helgarritasunerako Herriko Etxetako Batzordeak (HHEB) edo Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak (HHB) honakoa egiten dutela:

- Eraikinen, bideen, eremu publikoen eta garraioen helgarritasunaren egoera-akta;
- Tresna elektroniko bidez eguneratzen dute herriaren edo elkargoaren lurraldean diren, HPA egin duten eta jendea errezibitzen duten eraikinen zerrenda, bai eta ahalmen urriko pertsonak eta adineko jendeak errazki joan daitezkeen eraikinen zerrenda ere;
- Sistema bat antolatzen dute, ahalmen urriko pertsonendako eta adineko jendeendako bizitegi eskuragarriaren eskaintza zerrendatzeko.

Mugikortasunen legeak betebeharrak ezartzen dizkie batzordeei:

- Ahalmen urriko edo mugikortasun urriko pertsonen helgarritasuna zehaztea, urritasun motaren arabera, garraioen kodearen L.1112-1 artikuluari jarraikiz lehentasunezko geldilekuen berrehun metroko inguruan dauden ibilbide eta bide nagusietan.

Betebeharrak aplikatzeko, helgarritasunari buruzko datu-basea sortu behar da eraikinei, bideei eta garraioei dagokionez, eta estatu-plataformei informazioa helarazi behar zaie.



Euskal Elkargoak, Helgarritasunerako misioaren bidez, Estatuarekin batera engaiamendua hartu du oinezkoen ibilbideen helgarritasun-datuei dagokionez estatu-estandar bat sortzeko. Horregatik, misioak Informazio Geografikoaren Kontseilu Nazionalako lan taldearen 9 bilkuran parte hartu du 2021ean. Lan horri esker, Informazio Geografikoko Kontseilu Nazionalak helgarritasun-datuei dagokien estatu-estandarra onartu ahal izan du. Eta, helgarritasun-datuei dagokien estatu-estandarrari esker, bide-kudeatzaileek datuak jasotzen ahalko dituzte lehentasunezko geldilekuen berrehun metroko inguruan dauden oinezko ibilbideak deskribatzeko.

Hala, 2021ean, gaiari buruzko bi dekretu argitaratu dira:

- **2021eko ekainaren 29ko 2021-836 dekretua**, Informazio Geografikoko Zentro Nazionalaren estandarra inposatzen duen oinezko ibilbideen helgarritasuna deskribatzen duten datuak biltzeari buruzkoa (ikus gorago);
- **2021eko ekainaren 30eko 2021-856 dekretua**, NeTEx truke-formatua inposatzen duten garraio-zerbitzuen helgarritasun-datuen bilketari lotutako xedapenei buruzkoa.


b. CEREMA, Lorient Agglomération eta Euskal Elkargoaren arteko partaidetza

> Eragilea: Helgarritasunerako misioa

> Noren izenean? Euskal Elkargoaren eta lurraldeko herri batzuen izenean

2020an, CEREMAk (arriskuei, ingurumenari, mugikortasunari eta antolaketari buruzko azterketarako eta aditu txostenetarako zentroak) helgarritasunerako ministerio-ordezkaritzaren izenean segitu nahi zituen jendea errezibitzen duten eraikinen helgarritasun-datuei buruzko lanak. Aldi berean, Euskal Elkargoak bere lurraldeko helgarritasun-datuak biltzen hasi nahi zuen eraikinei, bideei eta garraioari dagokienez. Horregatik CEREMAk Euskal Elkargoari eskatu zion Lorient Agglomération-ekin lankidetzan aritzea.

2020an egindako lanak batez ere jendea errezibitzen duten eraikinen datuei buruz zuzendu baziren, 2021ean CEREMAk, EHEk eta Lorient Agglomération-ek bideei dagozkien elementuak sartu nahi izan dituzte.



2021ean, kideak 5 aldiz elkartu dira. Lanaren helburua izan da helgarritasunari buruzko datuen tokiko eredia sortzea, honako hauek integratzeko:

- garraio publikoko zenbait geldilekuren –lehentasunezko geldilekuak deitutako horien– inguruan errazki joan daitekeen ibilbideak egiteko arauzko betebeharrak.
- Tokiko beharrak helgarritasun-datuei dagokienez.

Partaidetzaren barnean, Lorient Agglomération ari da konkretuki eredu osoa probatzen. Euskal Elkargoaren informazio geografikoaren zerbitzuarekin trukea antolatu da, eredia etorkizuneko Datu Geografikoen Azpiegituran integratzeko.

c. Estatuko lan taldeak

> **Eragilea: Helgarritasunerako misioa**

> **Noren izenean? Euskal Elkargoaren eta lurraldeko herri batzuen izenean**

Tokiko elkargoei helgarritasun-datuei dagokienez Frantziak eta Europak erabaki dituzten betebeharrei erantzuteko ahala emateko, helgarritasun-datuak bateratzeko lanean ari da estatua. Horretarako, gai hauei buruzko hainbat lantalde eratu ditu:

- **Bideak** ► Helburua da lehentasunezko geldilekuen berrehun metroko inguruan dauden ibilbide eta bide nagusietan helgarritasuna deskribatzen duten datuak zehaztu eta kalifikatzea;
- **Garraioak** ► Helburua da garraio publikoen helgarritasunaren berri emanen duten datuak zehaztu eta kalifikatzea;
- **Jendea errezibitzen duten eraikinak** ► Helburua da jendea errezibitzen duten eraikinen helgarritasunaren berri emanen duten datuak zehaztu eta kalifikatzea (eraikinetara sartzea eta eraikinen barnean mugitzea).

CEREMaren eta Helgarritasunerako ministerio-ordezkaritzaren eskaerei erantzunez, Euskal Elkargoak honako hauek integratu ditu:

- Bideetarako lan taldea;
- Jendea errezibitzen duten eraikinetarako lan taldea.

2021ean, 9 bilkuratan parte hartu du. Estatu mailan egindako lanari esker, partaidetzaren barnean egindako lana osa daiteke (ikus aitzineko paragrafoa), eta alderantziz.



V. Sentsibilizazioa – Formakuntza

a. Ahalmen urritasuna duten jendeen harrera

➤ **Eragilea:** Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen lan taldea

➤ **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren eta lurraldeko udalerri batzuen izenean

Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak axola handia du lurraldeko langileak sentsibilizatzeari ahalmen urritasuna duten jendeen harrerari. Horregatik, 2019an, lan taldeak plantan ezarri zituen ikusmen urritasunari, entzumen urritasunari, urritasun kognitiboari eta urritasun motoreari sentsibilizatzeko tailerrak eta tresnak.

2021ean, zenbait herri batzordeari eskatu diote sentsibilizazio ariketa horiek antolatzea. COVID-19aren pandemia dela-eta, Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen lan taldeak ezin izan dio eskaerari erantzun.

b. Helgarritasun numerikoa

➤ **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa

➤ **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren, lurraldeko herri batzuen eta Elkargoaren egitura satelite batzuen izenean

Elkargoaren helgarritasun numerikoaren erreferente gisa, Helgarritasunerako misioak Elkargoaren, herrien eta Elkargoaren satelite-egituren zerbitzuei helgarritasun numerikoaren erronkak azaltzen dizkie. Sentsibilizazio ikastaroak antolatzen ditu, eta ikastaro haiek Helgarritasuna Hobetzeko Araudi Nagusiaren betebeharrak aurkezteko aukera ematen dute. Hauek dira orduan aipagai nagusiak: webguneen eta aplikazio mugikorren helgarritasuna, helgarritasun digitalerako urte anitzeko eskemaren desmartxa, helgarritasun numerikorako erreferenteak eta kolaboratzaileak formatzearen beharra eta dokumentu eskuragarriak sortzearen beharra.

2021ean, bereziki erakunde hauekin solastatu zen:

- Maurice Ravel Iparraldeko kontserbatorioa
- Bil Ta Garbi sindikatua
- Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa

Solasaldi horien ondotik, eta zerbitzuek hala eskaturik, formakuntza numerikoaren beharrak ebaluatzeko galdeketa bat bidali zitzaion erakunde haiei.



VI. Finantzamendua

> **Eragilea:** Dirulaguntzen misio karguduna

> **Noren izenean?** Lurraldeko 5.000 biztanle baino guttiagoko herrien izenean

Elkargoak helgarritasunerako dirulaguntza bat plantan ezarri du, eta horren bidez finantza daitezke lurraldeko eraikinak, bideak edo alor numerikoa arauen arabera emateko beharrezkoak diren ikerketak eta obrak.

Lurralde-elkartasunagatik, 5.000 biztanletik beherako herri guzietan ukaiten dute dirulaguntza hori, banaketa honen arabera:

0 eta 1.000 biztanleren artean = 15.000 € herri bakoitzeko, 3 urterako;

1.000 eta 5.000 biztanleren artean = 8.000 € herri bakoitzeko, 3 urterako.

1.000 biztanletik beherako 117 herriri eta 5.000 biztanletik beherako 27 herriri ematen zaie.

Dirulaguntzak 1.971.000 euroko aurrekontua du 2019-2021eko aldirako.

2021ean, 88 eskaera ikertu dira. 997.400 € baino gehiago banatu dira.

ESKAEREN BANAKETA LURRALDE EREMUEN ARABERA:

- | | |
|------------------------|---------------------|
| • Amikuze : 21 | • Hazparnealdea : 5 |
| • Errobi : 5 | • Errobi Aturri : 5 |
| • Garazi-Baigorri : 15 | • Xiberoa : 17 |
| • Iholdi-Oztibarre : 8 | • Hego Lapurdi : 5 |
| • Bidaxunealdea : 7 | |



C. 2022 HELBURUAK





I. Eraikinak

a. Helgarritasun Programatuko Agenden (HPA) jarraipena

- > **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa
- > **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren eta herri batzuen izenean

Ondare eraikiaren eta baliabide orokorren zuzendaritza eta herriak laguntzen segitzea, Helgarritasun Programatuko Agendak (HPA) obra ditzaten, lurralde mailan.

b. LIFI esperimentazioa

- > **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa
- > **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren izenean

2022an, 2021ean egindako oharra kontuan hartuz, proiektuaren jarraipena egingen da, bi fasetan:

● Fase teknikoa

- Mezuen edukia berrikusiko da;
- Balizen banaketa aldatuko da;
- Aplikazioaren ikuskatze-txostenean idatzitako arau haustea zuzenduko dira;
- Ikuskatze berri bat programatuko da IOS eta ANDROIDen bidez.

Esperimentazio fasea

- Fase tekniko horren ondoren, esperimentazio fase bat programatuko da. Protokoloa 2021ean erabilitakoaren berdina izanen da. CEREMAK esperimentazioari buruzko behin betiko txostena idatziko du, Helgarritasunerako misioarekin lankidetzan.





II. Mugikortasunak

a. Helgarritasun Programatuko Agendaren Eskema Nagusia (HPAEN)

➤ **Eragileak:** HPAEN-en misio karguduna eta Helgarritasunerako misioa

➤ **Noren izenean?** Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren izenean
2022an, Mugikortasunen Sindikatuak honakoa egitea aurreikusten du:

- merkataritza-garraioko geldileku guzien ikuskatzea egitea, lehentasunezko geldilekuen zerrenda berri bat egiteko;
- zerrenda honen parte diren herri bakoitzarekin egutegia zehaztea, geldilekuak arauen arabera egiteko;
- material ibiltariaren zerrenda zehatza egitea;
- zerbitzu-eskaintzaren zerrenda zehatza egitea;
- bidaiarien informazioaren helgarritasuna ebaluatzea;
- langileen formakuntzan arreta jartzea;
- 2022 bukaerarako helgarritasun programatuko agendaren eskema nagusi berriaren alde bozkatzea.

b. Araudi teknikoa: garraio publikoko geldileku baten antolatzea

➤ **Eragilea:** Mugikortasunen Sindikatuaren azpiegituren zerbitzua

➤ **Noren izenean?** Herrien izenean

2022an, geldilekuetako kaiak egokitzeko aldaketak:

- Segurtasun-eremuaren markatzea;
- Aitzineko atean seinaleak ezartzea;
- Gida-ibilbideak kentzea.

Mugikortasunen Sindikatuak obra-kanpaina bat jarriko du abian, ados diren lurraldeko udalerrietan.



III. Numerikoa


a. Helgarritasun digitalerako urte anitzeko eskema

- **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa
- **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren, par Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren eta lurraldeko 158 herrien izenean
 - Euskal Elkargoaren eskemaren ekintza-planaren jarraipena (2. urtea);
 - Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren helgarritasun numerikorako urte anitzeko eskema egitea;
 - Herriei laguntzea.

b. Elkorrak eta entzumen urrikoak diren pertsonendako telefono bidezko harreraren eta harrera fisikoaren aterabidea

- **Eragileak:** Helgarritasunerako misioa, HHEB-HHB sareko hautetsiak
- **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren eta lurraldeko herri batzuren izenean

Aterabidea Ipar Euskal Herri osoan zabaltzea.





IV. Datuak

a. CEREMA, Lorient Agglomération eta Euskal Elkargoaren arteko partaidetza

- > **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa
- > **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren eta lurraldeko udalerri batzuren izenean

Helgarritasunari buruzko datuen tokiko eredia sortzen jarraitzea.

b. Estatuko lan taldeak

- > **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa
- > **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren eta lurraldeko herri batzuren izenean

Informazio Geografikoaren Kontseilu Nazionalaren lan taldean abiatutako lanen jarraipena.





V. Sentsibilizazioa – Formakuntza

a. Ahalmen urritasuna duten jendeen harrera

- **Eragilea:** Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen lan taldea
- **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren, Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren eta lurraldeko herri batzuren izenean

Osasun baldintzak aldekoak badira, Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeko lan taldeak lurraldeko herriei proposatuko dizkie harrerako langileak sentsibilizatzeko saio berriak.

b. Helgarritasun numerikoa

- **Eragilea:** Helgarritasunerako misioa
- **Noren izenean?** Euskal Elkargoaren eta lurraldeko herri batzuen izenean.

Helgarritasun Numerikorako Erreferenteen Sarearen barnean, “Helgarritasun numerikorako hitzorduak” plantan ezartzea, honako gai hauei buruz:

- eskema idaztea,
- ikuskatze laburra egitea,
- formulario irakurterraza ekoiztea,
- ...

Herrientzat, Elkargoaren egitura sateliteentzat eta Elkargoaren langileentzat: formakuntza-eskaintza aberastea eta bateratzea. Formakuntza adibideak:

- Irakurterraza eta ulertterraza
- Helgarritasun numerikorako erreferentea
- Eduki eta dokumentu irakurterrazak idaztea



VI. Finantzamendua

- > **Eragilea:** Dirulaguntzen misio karguduna
- > **Noren izenean?** Lurraldeko 5.000 biztanle baino guttiagoko herrien izenean

2021 urte hondarrean, Euskal Elkargoaren kontseiluak helgarritasunerako dirulaguntza urtebetez luzatzearen alde bozkatu du, dirurik gelditzen den neurrian.





COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

HELGARRITASUNERAKO MISIOAREN KONTAKTUA:

CLAIRE SARTHOU
06 48 51 13 29
c.sarthou@communaute-paysbasque.fr

CLAUDINE CELHAIGUIBEL
06 13 93 67 50
c.celhaiguibel@communaute-paysbasque.fr